

Gesto por la Paz

Rueda de prensa de Gesto por la Paz:

Análisis de la situación actual: aportaciones

La Coordinadora Gesto por la Paz de Euskal Herria desea presentar públicamente su análisis y valoración de la situación actual a través de los siguientes puntos:

1. El deseo mayoritario de esta sociedad es alcanzar la PAZ, término que en su máxima expresión implica una justicia e igualdad social en todos los ámbitos de la vida, pero que en estos momentos expresa la urgente necesidad de la desaparición del ejercicio de la violencia terrorista de ETA y de su amenaza.
2. La responsable de que se logre este deseado objetivo de la PAZ es ETA y quienes siguen justificando su existencia. A ellos les corresponde dar el paso definitivo e irreversible de abandonar la estrategia de la imposición y la amenaza y adentrarse plenamente en el funcionamiento democrático, sistema que cuenta con sus fortalezas y sus debilidades.
3. En esta situación de “alto el fuego permanente” por parte de ETA es necesario mantener una actitud de prudencia y esperanza. Este proceso tiene que desembocar en la desaparición definitiva de ETA, y se debe basar en unos principios básicos como son:
 - La deslegitimación de la violencia
 - El reconocimiento y la memoria de las víctimas
 - La ausencia de cesiones políticas a la violenciaEn definitiva, realizar una defensa de los valores del sistema democrático.
4. Las víctimas de la violencia deben ser un referente imprescindible en todas las actuaciones que se den. En estos momentos se hacen planteamientos erróneos que exigen a las víctimas: el perdón, la reconciliación con sus victimarios, una actitud de magnanimidad, etc. Estas actuaciones puede que se den o no. Serán fruto de una decisión personal, pero resulta un error y una injusticia hacia las propias víctimas plantearlas sin antes, como sociedad, haber hecho un recorrido liderado por las Instituciones, que reconozca el déficit existente hacia las víctimas y que plantee iniciativas en favor de su reconocimiento y de su memoria. Sólo una vez que se haya alcanzado esto, cosa que aún no sucede, se podrán realizar otros planteamientos, que nunca podrán ser una exigencia.

Bizkaia: Apdo. Correos 10152 48080 BILBAO. Tfno. 94 4163929 Fax 94 4153285

Alava: Apdo. Correos 2063 01080 VITORIA GASTEIZ Tfno. y Fax 945 226838

Gipuzkoa: Apdo. Correos 5005 20080 DONOSTIA Tfno. y Fax 943 290000

Navarra: Apdo. Correos 176 31080 PAMPLONA Tfno. y Fax 948223135

Gesto por la Paz

5. El Gobierno del Estado tiene que garantizar el cumplimiento absoluto de los principios antes señalados y hacer el máximo esfuerzo, con sus pronunciamientos y actuaciones, para que así sea percibido por la ciudadanía. Al Gobierno, como así ha ocurrido también en el pasado, le corresponde dirigir la política antiterrorista. Debe ser un ámbito caracterizado por la unidad de todas las fuerzas políticas y, si esta unidad no se da, debe quedar fuera, por la magnitud del problema, de la lucha partidista caracterizada por las descalificaciones, como por desgracia está ocurriendo.
6. En la situación actual es admisible establecer procesos de diálogo con quienes han ejercitado la violencia y también con quienes la han justificado, si existen indicios suficientes de una voluntad real de poner fin a la estrategia de la violencia. En este proceso, habrá que insistir en los principios fundamentales señalados -deslegitimación de la violencia, reconocimiento y memoria de las víctimas y ausencia de cesiones políticas a la violencia- y habrá que exigir a quienes han apoyado el terrorismo una clara desvinculación de la violencia y que asuman el compromiso de que también en el futuro se va a rechazar el uso del terror como arma política. Sería deseable que, en este proceso, se produjera un reconocimiento del daño causado.
7. La falta de consenso actual sobre el planteamiento de si se está otorgando un “precio político” a la PAZ que es negado por el Gobierno y afirmado por el primer partido de la oposición sólo tiene un beneficiario: ETA y el mundo que le apoya, que ante esta situación incrementa sus expectativas de conseguir réditos políticos a cambio de abandonar la violencia terrorista. Esta falta de unidad provoca un debilitamiento innecesario del Estado que debería en todo momento mostrar su inmensa superioridad moral, con el respaldo de todas las fuerzas políticas, sobre quienes han ejercido la barbarie del terrorismo.
8. Con ETA sólo se podrá hablar del abandono definitivo de las armas y de aquellas cuestiones que afecten a sus integrantes, atendiendo siempre a la legalidad vigente.
9. El futuro político de esta sociedad le corresponde decidirlo, como ya ocurre en estos momentos, a las Instituciones, a las fuerzas políticas y a la sociedad en general. Este funcionamiento democrático se vería positivamente influenciado por la desaparición definitiva de la violencia, cuya existencia ha contaminado la política y ha supuesto una clara amenaza para los defensores de las opciones no nacionalistas. Todo

Bizkaia: Apdo. Correos 10152 48080 BILBAO. Tfno. 94 4163929 Fax 94 4153285

Alava: Apdo. Correos 2063 01080 VITORIA GASTEIZ Tfno. y Fax 945 226838

Gipuzkoa: Apdo. Correos 5005 20080 DONOSTIA Tfno. y Fax 943 290000

Navarra: Apdo. Correos 176 31080 PAMPLONA Tfno. y Fax 948223135

Gesto por la Paz

proyecto de futuro deberá asumir, como riqueza y nunca como problema, un rasgo que identifica a esta sociedad: su pluralidad.

10. Son momentos sumamente delicados que requieren una gran dosis de prudencia y de responsabilidad por parte de todos los ciudadanos de este país, partidos políticos, asociaciones ciudadanas, jueces, prensa, analistas políticos, etc. Todos tenemos la obligación de actuar de forma responsable y de realizar cuantas aportaciones positivas requiera la consecución de la paz. En ocasiones, el silencio incluso, puede ser una de ellas.
-

Gaurko egoeraren azterketa: ekarpenak

Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundeak, ondoren aurkeztuko dituen puntuen bitartez, gaurko egoeraren azterketa eta balorazioa aurkeztu nahi du:

1. Gure gizarteko gehiengoaren nahia **BAKEA** jadestea da; bakea, bere adierazpenik gorenenean, hau da, bizitzako esparru guztietan zuzentasuna eta berdintasuna ekarriko duena, baina une honetan, indarkeria terrorista darabilen **ETA**ren jarduera eta bere mehatxua desagertzea berehalakotzat duena.
2. **BAKEAREN** helburu desiratu hau lortzea **ETA**ren eta bere existentzia justifikatzen dutenen esku dago, beraiena da ardura. Beraiei dagokie ezarpen eta mehatxuaren estrategia erabiltzeari behin-betiko uztea eta estrategia horretara gehiago ez itzultzea, eta sendotasun eta makaltasunak dituen sistema demokratikoan bete-betean sartzea.
3. **ETA**k aldarrikatutako “su-eten iraunkorrak” markatutako egoera honetan, jarrera zuhurra eta itxaropentsua izan behar dugu. Prozesu honek **ETA**ren behin-betiko desagertpena eraman behar gaitu, eta funtsezko printzipio batzuetan oinarritu behar du. Hala nola:
 - a. Indarkeriari zilegitasuna kendu.
 - b. Biktimak aitortu eta gogoratu.
 - c. Indarkeriari kontzesio politikorik ez egin.Azken batean, sistema demokratikoaren balioen defentsa egin.
4. Indarkeriaren biktimek nahitaezko erreferente izan behar dute jarduera guztietan. Gaur egun, biktimei hainbat gauza –barkamena, ‘biktimarioekin’

Bizkaia: Apdo. Correos 10152 48080 BILBAO. Tfno. 94 4163929 Fax 94 4153285

Alava: Apdo. Correos 2063 01080 VITORIA GASTEIZ Tfno. y Fax 945 226838

Gipuzkoa: Apdo. Correos 5005 20080 DONOSTIA Tfno. y Fax 943 290000

Navarra: Apdo. Correos 176 31080 PAMPLONA Tfno. y Fax 948223135

Gesto por la Paz

adiskidetzea, eskuzabaltasunezko jarrera, e.a.- eskatzen dieten okerreko planteamenduak egiten dira. Jokaera horiek kasu batzuetan gertatuko dira eta beste batzuetan ez. Erabaki pertsonalaren fruitu izango dira, baina oker nabaria da, eta biktimen aurkako bidegabekeria, aurretik aurkeztea, gizarte bezala, erakundeak buru direla, biktimenganako gabezia aitortuko duen eta beren aitorten eta oroipenaren aldeko ekimenak aurkeztuko dituen prozesua egin gabe. Aipatu berri dugun hau jadetsi ondoren, eta oraindik ez da horrelakorik gertatzen, egin ahal izango dira beste planteamendu batzuk, baina inoiz ez eskakizun erara.

5. Estatuko Gobernuak gorago aipatutako printzipioen erabateko burutzapena bermatu behar du eta biziki ahalegindu, bere pronuntziamendu eta jarduerekin, herritarrek horrela antzeman dezaten. Gobernuari dagokio, iraganean ere gertatu izan den bezala, terrorismoaren aurkako politika zuzentzea. Esparru horretan indar politiko guztien batasuna nabarmenduko da eta, batasunik egon ezik, gaur gaurkoz zoritxarren gertatzen ari den bezala, arazoaren izariagatik, deskalifikazioak nagusi diren borroka alderdikoitik kanpo geratu behar du.
6. Gaurko egoeran, onargarria da indarkeria erabili eta justifikatu izan dutenekin elkarrizketa prozesuak ezartzea, baldin eta indarkeriaren estrategia bukatutzat jotzeko benetako borondatea dagoela islatzen duen arrasto nahiko badago. Prozesu honetan, aipatutako funtsezko printzipioak –indarkeriari zilegitasuna kendu, biktimak aitortu eta oroitu eta indarkeriari kontzesio politikorik ez egin- nabarmendu beharko dira eta indarkeria erabiltzeari uztea eta etorkizunean ere izua arma politiko bezala hartzeari uko egiteko konpromisoa exijitu beharko zaie terrorismoa babestu dutenei. Prozesu honetan, egindako kaltea aitortzea komeniko litzateke.
7. Gaur gobernu eta oposizioko alderdi nagusia ez datoz bat BAKEARI “prezio politiko” ematearen inguruko planteamenduan: lehenengoak puntu hori ukatzen duen bitartean, bigarrenak baieztatu egiten du eta aurkakotasun horrek onuradun bakarra du: egoera honen aurrean, indarkeria terrorista uztearen truke irabazi politikoak jadesteko itxaropenak gehitzen zaizkion ETA eta berau babesten duen mundua. Batasunik ezak Estatuaren premiagabeko makaltasuna eragiten du. Estatuak, hain zuzen ere, bere egundoko nagusitasun morala erakutsi beharko luke terrorismoaren krudelkeria jasan izan duten indar politiko guztien babesarekin.
8. ETArekiko elkarrizketako solasgaiak, armak behin-betiko uztea eta ETAkideei dagozkienak izango dira, beti ere indarrean dagoen legeria aintzat hartuta.

Bizkaia: Apdo. Correos 10152 48080 BILBAO. Tfno. 94 4163929 Fax 94 4153285

Alava: Apdo. Correos 2063 01080 VITORIA GASTEIZ Tfno. y Fax 945 226838

Gipuzkoa: Apdo. Correos 5005 20080 DONOSTIA Tfno. y Fax 943 290000

Navarra: Apdo. Correos 176 31080 PAMPLONA Tfno. y Fax 948223135

Gesto por la Paz

9. Une hauetan gertatzen ari denez, Erakundeei, indar politikoei eta gizarte osoari dagokie gizarte honen etorkizun politikoa erabakitzea. Indarkeriaren behin-betiko desagertpenak eragin guztiz positiboa izango luke jarduera demokratiko honetan, indarkeria horrek politika kutsatu egin duelako eta mehatxu gordina izan delako aukera ez nazionalisten aldekoentzat. Etorkizunari begira eratutako egitasmo guztiek aberastasuntzat hartu beharko dute, eta inoiz ez arazotzat, gizarte honen ezaugarrietako bat: bere pluraltasuna.
10. Une labainak bizi ditugu eta herri honetako biztanle guztioi, alderdi politikoei, herritarren elkarteei, epaileei, prentsari, analista politikoei, e.a. zuhurtzia eta ardura handia eskatzen zaigu. Denok jokatu behar dugu erantzukizunez eta denoi dagokigu bakea ezartzeko beharrezkoak diren ekarpen positiboak egitea. Batzuetan, isiltasuna bera izan daiteke ekarpenik onena.

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

15 de julio de 2006



Bizkaia: Apdo. Correos 10152 48080 BILBAO. Tfno. 94 4163929 Fax 94 4153285
Alava: Apdo. Correos 2063 01080 VITORIA GASTEIZ Tfno. y Fax 945 226838
Gipuzkoa: Apdo. Correos 5005 20080 DONOSTIA Tfno. y Fax 943 290000
Navarra: Apdo. Correos 176 31080 PAMPLONA Tfno. y Fax 948223135

gesto@gesto.org

www.gesto.org